

Marmari Leitzako

26. zenbakia / 2014ko abendua

aldizkaria

- Izenak eta izanak
- Leitzako mapa
- Iparmank
- Atekabeltz herrigunea
- eta gehiago...

Izena
duenak
izana
omen du

zenbaki honetan:





Izena duenak izana omen du

“Izena duenak izana omen du” dio esaera zahar batek. Izenen inguruko kontu hori ez da MARMARI aldizkari honetako gai bakarra, baina bai oraingoan ekarri dugunetako bat. Bi artikulutara ekarri dugu gaia, hain zuzen ere: batean pertsona izenez ariko gara, Leitzako patrioiaren izenetik —Mikel izenetik, alegia— abiatuta. Aitzakia horrekin, euskarazko hainbat izenen inguruko argibide batzuk emanen ditugu. Eta beste artikulua batean ere izenez ariko gara, baina oraingoan Leitzako toki izenez. 2014ko udan argitaratu den Leitzako mapa toponimiko berrituak eman digu horretarako aitzakia, lan

bikaina izaki ezin baikenuen gurean aipatu gabe utzi. Izen asko bildu dituzte mapa horretan, denak ere gure eskura modu erraz batean. Eta, esaerak dioen bezala, izenen atzean izana, batzuetan ilun eta besteetan garden.

Ez da hori, arestitxoan ere esan dugu, aldizkariko gai bakarra. Beste kontu batzuk ere ekarri ditugu, interesgarri askoak: Mari Jose Barriolari egindako elkarrizketa, esate baterako. Zurarekin lotutako proiektu interesgarrietan dabil Lesakan bizi den leitzarra, eta horretaz galdetu diogu elkarrizketan. Eta oso bestelako gaiak ere landu ditugu, ohi bezala Leitzari begira jarrita: Atekabeltz

herrigunea, garai bateko ume leitzarren idatzi batzuk, iparmank webgunea, Idoia Zabaletaren argazkiak...

Hortxe duzu aurtengo MARMARI, zure gustukoa izanen delakoan. Eta, hain zuzen ere, zuen gustuko aldizkaria den edo ez jakiteko, eta aldizkariaren gaineko zuen iritzia, ideiak, ekarpenak edo proposamenak jasotzeko, inkesta bati erantzuteko aukera eman dizuegu zenbaki honetan. Zinez esker-tuko genizuke, irakurle hori, inkesta bete eta guri helaraztea, aldizkaria bera hobetu eta indartu dezagun. Zure iritziarekin lagunduko diguzulakoan, segi bizkor!

Izenak eta izanak

Norberaren izenak zer esan nahi ote duen kontu interesgarria izaten da, norberarentzat batez ere. Zenbaitetan oso argia izaten da esanahi hori —Haritz, Nahia, Zigor, Enara— hitzaren esanahia gardena eta ezaguna delako, eta hiztegieta horrelaxe aurki dezakegulako. Beste askotan, ordea, ez da hain erraza izaten izenak zer esan nahi duen asmatzea, edo ilunago agertzen da behintzat.

Eta askotan harritu ere egiten gara izen jakin batek duen esanahia ikastean dugunean edo horren berri lehendabiziko aldiz izaten dugunean. Izenen kontu horri tiraka idatzi dugu honako artikulua, Leitzan oso arrunta den izen batetik abiatuta. Leitzako patroia izena ere bada —Mikel izenaz ari gara, jakina—, baina beharbada zuetako hainbatek ez duzue izen horren nondik norakoaren berririk.

NOR JAUNGOIKOA BEZALA?

Esalditxo hori behin baino gehiagotan irakurri izan duzue, han eta hemen akaso. Esate baterako, Leitzako udaletxeko batzar aretoan dagoen banderako testuan. Horrelaxe jartzen baitu: “Leitza. Nor Jaungoikoa bezala?”. Jende asko ohartu izan da esaldi horretaz, baina beharbada askok ez dakite zergatik dagoen hor. Bada, banderako testu hori, hain zuzen ere, *Mikel* izenaren esanahia da. *Mikel* izenak “Nor Jaungoikoa bezala” esan nahi du, alegia. Euskaltzaindiaren euskal izendegia liburuak honela dio hitzez hitz:

“*Hebreerako Mikha’el* (“*nor jaunkoa bezala?*”) izena *Michael* bihurtu zen grezierako eta latineko itzulpenetan (...). Jaieguna irailaren 29an da. Alderak: *Mikele* eta *Mitxel*. Baliokideak: *Miguel* (gaz.) eta *Michel* (fr.)”



Kasu honetan, beraz, izenak badu esanahi jakin bat. Beste askotan ere hala izaten da eta zalantzarik gabe jakin dezakegu izenak zer esan nahi duen, adituen iritziaren beharrik izan gabe, guztiz gardenak direlako: Orkatz, Goizeder, Amets...

Zenbaitetan, berriz, esanahia zein den ez dakigu, eta ez dugu deus esateko arrastorik ere, edo gehienez hipotesiak egin ditzakegu, deus ziur esatera iritsi gabe.

Eta beste zenbaitean, guri oso iluna iruditu arren, adituen ikerketen eta azterketen bitartez ikas dezakegu izena-



ren esanahia zein den. *Mikel* da horren adibide bat.

Ezin dugu hemen herriko izen guztien berri eman, bistan denez, baina batzuen aipamena eginen dugu, izenen esanahia-
ren kontu hau pixka bat ilustratzeko. Gure informazio iturria Euskaltzaindiaren *Euskal izendegia* liburua izan da, eta bertan, artikulu honetan agertzen direnez gainera, beste izen asko ere aurki ditzakezue, askotan haien inguruko argibideak eta azalpenak lagunduta. Liburuaren eduki guztiak Euskaltzaindiaren webgunean ikus daitezke (euskaltzaindia.net), onomastika atalean.

Honatx, esan bezala, liburuko izen batzuk eta hainbat argibide, Euskaltzaindiaren liburutik hitzez hitz hartuta:

Aitor: J.A. Xaho idazle zuberotarrak *La légende d'Aitor* lanean kaleratu zuen

izena; beranduago F. Navarro Villosladaren *Amaia o los vascos en el siglo VIII* eleberriko pertsonaia ospetsua izan zen. Zuberoan *aita onen semea* esaten da 'noblea' adierazteko. Hortik Xahok euskaldunok *Aitor*-en semeak garela atera zuen, okerreko etimologia eginez. Gaur egun Euskal Herrian gehien erabiltzen den izenetako bat da.

Amaia. N. Villosladaren *Amaya o los vascos en el siglo VIII* eleberrian agertzen den pertsonaia nagusia. Esanahia argia da: 'amaia', 'amaiera' edo 'bukaera', bera azkenekoa baita. Burgosen bada erro-matarren kontrako borrokan kantabroen hondarreko gotorlekua izandako *Peña Amaya* deritzana, antroponimoarekin zer ikusirik ez duena, eta Euskal Herriko toponimian ezagunak dira *Amaia* toki izenak. Arrakasta handia eduki du, Hego

Euskal Herrian azken urteotan gehien erabili den neska izena izan baita.

Asier: F. Navarro Villoslada idazlearen *Amaya o los vascos en el siglo VIII* liburuko pertsonaia, Amagoiaren semea. Izen honen esanahia ('hasiera') *Amaia* beste pertsonaia nagusiaren izenaren adierari ('bukaera'-ri) kontrajartzen zaio, kontakizuna lehendabiziko kristauen eta azkeneko jentilen ingurukoa baita. Asier-ek *Eudon* izena ere hartzen du eleberrian.

Arantxa. Izatez *Arantzazu* izenaren hipokoristikoa edo txikigarria zen, baina horrelakoetan maiz gertatu den bezala, gaur egun izen maila lortu duela esan daiteke.

Arantzazu. 1918tik Gipuzkoako zaindaria da. Bitan agertu omen zen eliza eraikitzeke aginduz, dirudienez lehen aldian ez baitzuten haren manua aintzat hartu. Bigarreanean, berriz, Rodrigo Balantzagiri agertu omen zitzaion elorri edo arantza batean, eta honi zor zaio hain zabaldu dagoen etimologia. Izan ere, kondairak dioenez, "Arantzan zu?" galdegin omen zion artzainak Andre Mariari. Argi dago azalpen polita bezain okerra dela eta esanahia askoz ere arruntagoa dela: *arantza* + *zu*, hau da 'arantza landarea ugari dagoen lekua'.

Beñat. Bernart. *Bernhard* (berin 'hartz' edo 'gerlaria' eta *hard* 'indartsua') germaniar izenetik sortua da. Alderak: *Bernat* (Bernat Etxapare) *Bernardo* eta *Beñat*. Baliokideak: *Bernardo* (gaz.) eta *Bernard* (fr.).

Edurne. Sabino Aranak eta Koldo Elizalde argitaratuko *Santu Izendegia*-n gaztelaniazko (*Nuestra Señora de las Nieves*-en euskal baliokide femeninotzat proposatutako izen hau izan da arrakasta gehien eduki dutenetako bat. Oinarrian mendebaldeko hizkeretako *edur* 'elu-

rra´ dago; atzizkia S. Aranaren lanean emakume izenak sortzeko erabiltzen den *-ne* da.

Eneko. Ohiko euskal izena Erdi Aroan. Jakitunen artean adostasun zabala dago euskal izentzat jotzean; osagaiak ene ´nirea´ eta *-ko* atzizki hipokoristikoa dirateke, eta jatorrizko adiera ´enetxoa´ edo. Loiolako Eneko latinez *Enecus* zen eta gaztelaniaz *Iñigo*, lehenago Iruñeko erregeak edo Bizkaiko jaunak bezala. Gero *Ignatius* kristau izena hartu zuen Jesusen Lagundiaren fundatzaileak, Antiokiako santuaren omenez. Sabino Aranak eta Koldo Elizalde argitaratuko *Santu Izendegia-n Ignazio*-ren kideztat *Iñaki* proposatu zen.

Frantzes. Erdi Aroko izena, jatorriz ´frankoa´ esan nahi zuena, gero ´frantsesa´ adieraztera igaro bazen ere. Mota honetako izenak (cf. *Alaman* edo *Ingles*) ohikoak ziren Europa osoan.

Frantzisko. Asisko Frantziskori zor zaio honen hedadura. Berez *Frantzes* izenaren txikigarria zen italieraz; sorburua santuaren amaren frantses hizkuntzaren alderako zaletasunean bilatu beharra da. Erabilera handikoa izan denez hipokoristiko asko eduki ditu: *Patxi*, *Patxo*, *Prais-ku*, *Pantxiko*, *Patziku*... Baliokideak: *Francisco* (gaz.) eta *François* (fr.).

Patxi Frantzisko-ren hipokoristikoa izan da, eta oraindik ere horrela da hein batez, baina aitortu beharra dago maiz-kara gaztelaniazko *Francisco*-ren euskarazko baliokidetzat hartzen dela.

Iñaki. Ignazio. Eneko Loiolakoak gure artean zabaldutako izena. *Ignatius* Antiokiako santu handia izan zen, eta berarenganako jaietaz hartu zuen Loiolakoak *Ignazio* izena. Gogoratu beharra dago *Eneko* ez zela kristau tradizioako izena eta horregatik beranduago desegokitzat emango zela, Trentoko kontziliotik aurre-

ra ezinbesteko baitzen kristauek santutegiko izena izatea. Aldaerak: *Inazio* eta *Iñaki* (Sabino Aranak eta Koldo Elizalde argitaratuko *Santu Izendegia*). Hipokoristikoak: *Inaxio*, *Iñizio*... Baliokideak: *Ignacio* (gaz.) eta *Ignace* (fr.).

Iñaki izena izan zen 1938an euskal izenak debekatu zirenean aipatu zen hiruretako bat: “*los nombres de Iñaki, Kepa, Koldobika y otros que denuncian indiscutible significación separatista*”.

Iruñe. Gaztelaniazko *Trinidad*-en baliokidetzat Sabino Aranak eta Koldo Elizalde argitaratuko *Santu Izendegia-n* ematen den izena. Azken urteotan *Hirune* aldaera nagusitu da.

Kepa. Sabino Aranak eta Koldo Elizalde argitaratuko *Santu Izendegia-n Pedro*-ren baliokidetako ageri den izena, arameoko *kephas* ´haitza´ hitzetik hartua. Hau izan zen 1938an euskal izenak galarazi zirenean aipatu zen hiruretako bat: “*los nombres de Iñaki, Kepa, Koldobika y otros que denuncian indiscutible significación separatista*”. Ikus *Petri*.

Leire. *Leire*, irudi duenez, latineko *Le-gionarius* izenetik atera da. Aldaerak: *Leiore* eta *Lexuri*.

Maidier. Honek bi iturri ditu: *Mari* eta *Eder* hitzen bat egitea lehenik, eta Zubereroan ´jentila´ adieraz erabiltzen den izena gero.

Maite. Euskal izen jatorra, oso erabilia eta zarzuela bati esker mundu osoan ezaguna. Arrunt korapilatsua izan da izen honen bilakaera: berez maitea, maitatua adjektibotik dator, baina euskal izenak debekaturik egon ziren garaian usaiakoa zen haurri Maria Teresa paratzea, gero Maite deitzeko. Aldaerak: *Amate* (Sabino Aranak eta Koldo Elizalde argitaratuko *Santu Izendegia*), *Maitane*, *Mattane* eta *Maitasuna*.

Nerea. Jabetza adierazten duen hitz hau ponte izentzat erabili izan da, artikularekin (*Nerea*) zein artikulurik gabe (*Nere*). Diktadura garaian, euskal izenak debekaturik baitzeuden, erdarazko *Nereo*-ren femeninoa zela esaten zen, egiazki euskaraz duen adieragatik erabiltzen bazen ere. Aldaera: *Enea*.

Petri (Pello...). Latinetik heldu zaigun izena. Kristok berak eman zion izena lehendabiziko aita santua izango zenari: “*Simon zara zu, Joanen semea, baina aurrerantzean Kefas deituko zara*”. Arameoko *Kephas* ´haitza´ *Petros* itzuli zuten lehenik grekoz eta *Petrus* geroago latinez. Erabileraren ondorioz aldaera asko daude Euskal Herrian: *Peru*, *Petri* bezain arrunt eta egokia dena, *Betiri*, *Petiri*, *Pello* eta, azkenik, *Kepa*. Hau Sabino Aranak eta Koldo Elizalde argitaratuko *Santu Izendegia-n* proposatu zen, arameoko jatorrizko *Kephas*-etik abiatu. Hipokoristikoak: *Per*, *Peruski*, *Peritxo*... Baliokideak: *Pedro* (gaz.) *Pierre* (fr.).

Unai. Unai izen arrunta da eta ´behiak zaintzen dituen´ esan nahi du. Beste asko bezala goitizentzat erabili izan da; esaterako, Artaxoan (N) *Garcia Unai*a agertzen da 1167. urtean. Sabino Aranak eta Koldo Elizalde argitaratuko *Santu Izendegia-n* gaztelaniazko Buen Pastor-en baliokidetako *Unai* eta *Unai-ona* azaltzen dira. Gaur egun maizko aditzen bada ere, diktadura garaian erregistroan sartzeko oztopo larriak egon ziren.

Xabier. Nafarroako gaztelu eta herria, bertako seme izan zen Frantzisko Jatsu Azpilikueta santuari esker mundu osoan ezaguna. Zundu aituzineko azken hitzak euskaraz esan zituen, bere ama hizkuntzan. *Xabier* euskal etorkiko izena da (osagaiak *etse* ´etxea´ eta *berri* dira, irudi duenez). Baliokideak: *Javier* (gaz.) eta *Xavier* (fr.).

BAIETZ ASMATU

Marmari aldizkari honetan nahikoa tematuta egon gara beti herria ezagutzeak duen garrantziarekin, eta horregatik saiatu gara beti herriaren inguruko jakingarriak argitaratzen. Eta tarteka saiatu gara zuen ezagutza hori frogatzen, test moduko ariketa batzuk proposatuz. Oraingoan ere halaxe eginen dugu, galdetegitxo bat prestatu baitugu nahi izanez gero irakurleok erantzun dezazuen. Leitzarekin edo Leitzako euskararekin zerikusia duten galderak eta balizko erantzunak ikusiko dituzu aurrena, eta erantzun zuzenak ariketaren bukaeran aurkituko dituzu. Honatx, bada, gure galdetegia:

1.- Zer esan nahi du *Konpontzioa* hitzak?

- a) Konponketa txikia, behin behinena
- b) Melontzio pailazo ezagunaren bikotekidea
- c) Desadostasun baten ondoren lortutako irtenbide negoziatua

2.- Noiz erabiltzen da *Kunplikatillu* hitza?

- a) Galiziarrek esaten dute, gauzak okertzen ari direnean
- b) Umeak katiluan jarritako guztia jan duenean
- c) Konplimendua adierazi nahi denean

3.- Zer da *pikotxean* jartzea?

- a) Nor bere belaunen gainean makurtuta jartzea
- b) Eskuak lurrean jarrita eta hankak airean altxatuz gorputza zuzen-zuzen jartzea
- c) Heriotzara zigortutakoa egurrezko egitura baxu baten gainean jartzea

4.- Nola zuen izena Leitzako ikastolak?

- a) Done Mikel
- b) San Miguel
- c) Mikel Deuna

5.- Noiz sortu zen Leitzako euskaltegia?

- a) 1969an b) 1979an c) 1989an

6.- Zer dio esaera zaharrak? "Arri-urte,..."

- a) Larri-urte
- b) Zerri-urte
- c) Arto-urte

7.- Zein da Mikel izenaren esanahia?

- a) Jaun boteretsu hori
- b) Nor Jaungoikoa bezala
- c) Aupa leitza

8.- Usategieta izena duten zenbat toki aurkitu ditzakegu Leitzan?

- a) Bat
- b) Bi
- c) Hiru

9.- Nola zuen izena 1936ko gerran Leitzan nafarrek nahiz gipuzkoarrek altxamenduaren alde borrokatzeko osatutako tertzioak?

- a) Tercio de Leiza
- b) Tercio de San Miguel
- c) Tercio de Navarra

10.- Nola deitzen zitzaion iluntzean egiten zen ezkila-jotzeari?

- a) Amezkill
- b) Aitezkill
- c) Abemari ezkill

11.- Zenbat kilometro daude Leitzatik Iruñera?

- a) 68 km b) 58 km c) 48 km

12.- Zein dira Leitzarekin muga egiten duten herriak?

- a) Berastegi, Areso, Ezkurra, Saldias, Gorriti, Uitz, Beruete eta Goizueta.
- b) Berastegi, Areso, Ezkurra, Gorriti, Uitz, Beruete eta Goizueta.
- c) Berastegi, Areso, Ezkurra, Beintza, Gorriti, Uitz, Beruete eta Goizueta.

13.- Hiru espezie hauetatik zein ez dago Leitzan: lephoria, erbinudea edo azkonarra?

- a) Lepahoria
- b) Erbinudea
- c) Azkonarra

14.- Noiz izan zuen Leitzak inoizko biztanle kopururik altuena?

- a) 1915ean: 3.545 biztanle
- b) 1956an: 3.189 biztanle
- c) 1985ean: 3.335 biztanle

15.- Noiz hasi zen Leitzan Kontzentrazio Eskolarra?

- a) 1965ean b) 1975ean c) 1985ean

16.- Zerk banatzen ditu Amazabal eta Elbarren kaleak?

- a) Errekak
- b) Errepideak
- c) Seinale batek

17.- Hauetako bi, etxe bera ziren. Zein? Villa Paulina, Zirkulue, Gogortzanea edo Tardoa?

- a) Villa Paulina eta Gogortzanea
- b) Gogortzanea eta Tardoa
- c) Zirkulue eta Tardoa

18.- Noiz hasi zen Ttipi-Ttapa Leitzan banatzen: 1970ean, 1980an edo 1990an?

- a) 1970ean b) 1980ean c) 1990ean


19.- Zer elkarte mota zen 1990ko hamarkadan Leitzan lanean ari izandako Iraul?

- a) Kultur elkarte
- b) Gazte asanblada
- c) Euskara taldea

20.- Rock talde hauetako bat ez zen Leitzakoa edo ez du Leitzako kiderik izan taldean. Zein: Ekaitza, Laukitik ihes edo Iñor?

- a) Iñor
- b) Ekaitza
- c) Laukitik ihes

Erantzun zuzenak:
1.- a); 2.- c); 3.- a); 4.- a); 5.- c); 6.- c); 7.- b); 8.- c); 9.- b); 10.- a); 11.- c); 12.- b); 13.- b); 14.- a); 15.- a); 16.- a); 17.- a); 18.- c); 19.- b); 20.- b)



Leitzako mapa

Izena eta izana, horratx Leitzako mapak biltzen duena. Izenak mapan bertan emanak dauzkagu, hortxe baitaude idatzita eta txukun jasota Leitzako 1.000 inguru toki-izen: mendiak, errekek, baserriak, etxeak, parajeak, hegiak... Izana, ordea, horien atzean gordetzen dena da, izenak ez baitira izen huts, beti gordetzen dute historia puska bat, istorioren bat...

Leitzako mapa hartu eta ez da zaila gogoarekin eta irudimenarekin jostetan aritzea. Izen batzuk ilunak izanen dira guretzat, ezezagunak, esanahi zailkoak... Beste batzuk, berriz ezagunak, estimatuak, esanahi gardenekoak, eta akaso gure gogoan istorio polit eta ederrak piztuko dituztenak, edo akaso gauza ilunagoak gogoraraziko dizkigutenak.

Eta Leitzako mapan barrena ere irudimenezko bidaia egin daiteke. Mapan gora eta behera joan, izenak begiratu, eta atzean zer dagoen asmatzen saiatu. Galdezka hasiz gero askotan tokiak azpian gordetzen duena ikasiko dugu, guk

ez dakiguna ondokoak jakin bailezake. Eta izenaren esanahia edo historia inork azaltzen ez badigu ere, gerok asma dezakegu, irudimenak lagunduta, garai bateko leitzarrek zergatik jarri zioten izen hori honako paraje honi edo harako hari, edo zer gertatu zen bertan, edo zer egiten zuten han...

Bidaia hori etxeko egongelan egin dezakegu, nahikoa da mapa mahai gainean zabaltzea. Edo mapa eskuan hartu eta lurraren gainean irakur dezakegu, idatzita daukagun izenari dagokion tokiaren begien bistan daukagula.

Leitzako mapak ematen digu horretarako aukera bikaina, horrenbestez. Informazioa emana dagoen moduan oso erraza da toki-izen bat edo toponimo bat, mendi edo erreka bat konparaziora, non dagoen aurkitzea. Eta, alderantziz, ezagutzen dugun edo ikusi dugun toki baten izena zein den ere aise ikas dezakegu. Mapak, izan ere, lauki edo koardante batzuk dauzka, kode batzuk, eta horien bitartez lokalizazio-lana erraza eta praktikoa da.

LEITZAKO MAPA BERRITUA

Leitzako mapaz ari gara artikulu hone-tan, bada garaia horren inguruko argibide batzuk emateko. Leizta agertzen deneko mapa bat baino gehiago aurki daiteke han eta hemen, baina mapa toponimikoa, bertako toki-izenak edo toponimia biltzen dituena, garai batean Jose Miguel Elosegik egin zuena dugu, 2014. urtean Elosegik berak eta Pablo Feok berritua.

1997an argitaratu zen lehendabiziko aldiz Leitzako mapa toponimikoa. Egun batetik bestera kalean zen, baina mapa horren atzean urte askotako lan ikaragarria zegoen. Sekulako pazientziaz, konstantziaz eta oso metodikoki egindako lana, hainbat laguni makina bat galdera eginez, dokumentuak kontsultatuz, tokiak ikusiz eta bisitatuz... Egin duenak bakarrik jakin dezake horrelako lan bati zenbat ordutako dedikazioa eskaini behar zaion. Motibazioa behar da, jakina, ikaragarria, baina baita lana burutzeko diziplina ere. Egileari, Jose Miguel Elosegiri alegia, aitortu

beharreko zerbait dela iruditzen zaigu, zinez.

Lan ikaragarri horren fruitua, besteak beste, Leitzako mapa izan zen. Ez hori bakarrik, noski, Nafarroako Gobernuak berak, Udalak eta beste argitalpen batzuek ere lan hori erabili dutelako, eta askorentzat probetxu handikoa izan da. Herritarrek zuzen-zuzenean ezagutu duten produktua, nolanahi ere, mapa bera da. Leitzako 1.000 izen inguru bildu zituen mapa hark: auzoak, etxeak, baserriak, errekek, mendiak, parajeak... Denak txukun bilduta, eta grafikoki mapa argi batean kokatuta, lokalizatorako erraztasunak emanez.

Mapa horrek urte batzuk egin ditu, eta 2014. urtean berriz argitaratu da, orduko gauza batzuk zuzenduta edo aldatuta, gauza berriak ere sartuta, eta itxura are hobetoarekin. Aldaketa garrantzitsu bat, garai moderno eta teknologiko hauek interesgarria, koordinatuak ematea izan da. Aurreko mapak ez zituen, oraingoak bai. Alegia, egun hain arrunta den GPS batekin ere mapan agertzen diren tokiak eta haien izenak zehatzago eta hobeki identifikatu eta lokaliza ditzakegu. Mendingan dabilen askok, bertako nahiz kanpoko, estimatuko duen tresna edo laguntza.

Toki-izenen edo toponimiaren inguruko lana Elosegiren urtetako ahaleginaren emaitza da, eta produktua berritzeko garaian Pablo Feo izan du diseinu kontutan eta alderdi teknikoan laguntzaile. Diseinuaren lurraldean eroso eta seguru mugitzen da Pablo, eta bere eskua ere nabaritzen da mapan, logikoa den gisan. Emaitza produktu eder bat da, denontzat eskuragarria, eta gure ustez Leitzako etxe guztietan egon beharko lukeena. Izan ere, mapa ez da soilik motxila eta botak jantzita mendira abiatuko den mendizalearentzat beharrezkoa edo interesgarria. Hasieran esan dugun bezala, etxetik bertatik ere har daiteke gozatu bat mapan barrena, gora eta behera, izenzopa ordenatu eta ongi antolatuta horretan



Leitzako mapa zahar bat

Leitzako mapa berriez ari gara artikulu honetan, baina zaharragorik ere bada. Esate baterako, 1790 inguruan Leitzako Martin Fermin Zabaleta elizgizon matematikoak egin zuena, harribitxi bat benetan, noiz egin den kontuan izanez gero. Baserriak eta errekek azaltzen dira, eta zirkuluaren bitartez zaldiz ordubete egin zitekeen bidea adierazten da.

murgilduta, herriaren ezagutza hobetuz eta handituz.

Mapa argitaratu ondoren salgai jarri zen aurtengo udan. 1.500 ale inprimatu ziren, horietatik 1.000 ale tolestutakoak, eta beste 500 tolestu gabeak, paretan eta marko batean txukun-txukun jartzeko modukoak. 10 euroko prezioan jarri zen salgai Maimur eta Astitz liburu-dendetan.

Bestalde, eta teknologiari probetxua ateraz, mapan bertan dagoen QR kodearen bitartez, aurrerantzean mapari eginen zaizkion egokitzapenak eta berrikuntzak deskargatu ahal izanen ditu horretarako interesa duenak. Horretaz gain, mapa georeferentziatuta egonen denez, Google earth, Oruxmaps, GPS eta antzeko aplikazio edota programatan erabili ahal da.

Gure herria hobeki ezagutzeko tresna paregabea dugu eskura, beraz, erabili eta goza dezagun.

AUZOETAKO ERROTULAZIOA

Leitzan, inguruko herrietan bezala, herri-gunea eta auzoak ditugu. Bost dira Leitzako auzoak — Arkiskil, Erasote, Erreka, Gorritzaran eta Sakulu—, eta herriko baserriak auzo horietan banatuta daude. Betiko baserriez gain, azken hamarkadetan etxebizitza berriak ere eraiki dira, eta gaur egun 160 etxebizitza daude guztira.

Nork bere etxeko bidea ongi aski ezagutzen du, bistan da, baina kontua nahasiagoa gertatzen zaio etxekoa ez denari, esate baterako kanpotik zerbitzuren bat ematera etortzen denari: larrialdietako zerbitzuak izan daitezke, edo zerbait banatzera etorritakoak, edo arrazoiak edozein dela ere bisitan etorri den edonor... Pistetan aurrera eta atzera ibili behar izan du batek baino gehiagok nahi zuen baserri edo etxebizitza hura aurkitzeko.

Bide eta pista sarearekin nahasmenak saihestea aspaldiko egiteko bat zen, beraz, eta arazo hori konpontzeko auzoetako errotulazioa egitea ere aspaldiko ideia da. Azkenean, 2014. urtean, egitasmo edo proiektu hutsa zena gauzatu egin da eta Leitzako Udalak auzoetako errotulazioa egin du. Auzoetan, beraz, baserrien eta etxebizitza berrien izenak jasota eta markatuta daude seinaleen bidez. Kotxez, bestelako ibilgailuz edo oinez hurbiltzen denak, bidegurutzetan edo eraikinen inguruan errotulu horiek ikusiko ditu, eta errazagoa egingen zaio baserria edo etxea identifikatzea edo aurkitzea.

TOKI-IZENAK JASOTZEA ETA GORDETZEA. NOLA?

Bai Leitzako mapak eta bai auzoetako errotulazioak helburu praktikoak dituzte. Mapak, esate baterako, Leitzako lurraldea eta bertako izen guztiak euskarri batean ematen dizkigu, eta tokiak kokatzen eta aurkitzen lagunduko dio hala behar edo nahi duenari, edo nondik joan behar duen erakutsiko dio mendian dabilenari, esate baterako. Auzoetako errotulazioaren kasuan, baserri auzoak dituzten hainbat herritan bezalaxe, baserrien nahiz etxebizitzaren kokapena eta ingurua ongi ezagutzen ez dutenei bertara iristeko bidea erraztea da helburua.

Helburu eta abantaila praktiko horiek ikus ditzakegu bi egitasmo horien atzean, baina ez dira horiek helburu bakarrak. Izan ere, bai mapak eta bai errotulazioak toki, paraje, baserri eta etxe horien guztien izenak jasota eta erakusten dizkigute. Leitzako toponimia erakusteko bidea ere badira, horrenbestez, bertako toki-izenen aberastasuna jasotzeko eta agertzeko bidea. Toponimia bera finkatzen eta gordetzen ere lagundu dezakete. Herritarren ahotan eta paperetan zegoena, mapan eta errotuluetan jasota eta egonkortua ikusiko dugu.

Izen horiek mapan eta errotuluetan idatziz jartzeko garaian, ohi den beza-



la, hainbatetan aukera bat baino gehiago agertu da. Alegia, eta esate baterako, baserri baten izena idazteko modu bat baino gehiago egon zitekeen, ahozko erabileran eta dokumentuetan modu ezberdinak agertzen zirelako. Izenak jasota eta idatzi behar baldin badira, ordea, zalantzak zalantza, momentu batean erabaki bat hartu behar da, zirt edo zart, eta bat hautatu. Eta ez da beti erraza izaten. Erabaki horiek hartzeko irizpide batzuk erabili dira, baina pentsatzekoa da ezinen dela beti denen gustua egin, eta izanen da beti egindako hautaketarekin erabat ados gelditu ez dena.

Izenak idazteko modua finkatzeko garaian mapa egin dutenak, Leitzako Udala eta euskara zerbitzua aritu dira, eta gaiari makina bat buelta eman ondo-

ren finkatu da zerrenda. Zerrenda hori osatzeko erabilitako irizpideak honela azaldu daitezke:

- Izenen forma finkatzea ariketa konplexua eta zaila da, ez baitago irizpide bakar eta ziurra. Ikuspegi eta interes desberdinak ager litezke, eta hala agertzen dira praktikan.
- Gauza bat da izenak ahoskatzeko modua, arautu ezin litekeena, eta beste bat izen horiek idaztea. Bi erregistro ezberdin dira, eta arau eta irizpide ezberdinak erabiltzen dira normalean. Erregistro idatzia ahozkoa baino konterbatzaileagoa izan ohi da eta, jakina, formalagoa.
- Leitzako etxeen eta baserrien izenak idatziz jasotzeko garaian, mapa toponimikorako eta errotuluetarako kasu



honetan, oro har, dokumentuei eta gaur egungo erabilerari begiratu zaio, eta bien arteko nolabaiteko oreka bilatu da. Dokumentuak eta gaurko erabilera nahikoa berdintsua ziren kasuetan, kasu gehienetan alegia, ez da aparteko zailtasunik izan. Dokumentuak eta gaurko erabilera urrutiago zeuden kasuetan, zailagoa suertatu da. Horrelakoetan, dokumentuetako formari eusteko ahalegina egin da, forma horiek eta gaurko erabilerak oso urruti ez zeudenean behintzat. Dokumentatutako formatik gaurko erabilerara jauzi oso handia zegoen kasuetan, edo dokumentuko forma erabiltzea oso gogorra gertatuko zela aurrekusi den kasuetan, nolabaiteko malgutasunez jokatu da: *Barbosemenea* da dokumentuetan agertzen den forma zaharra, adibidez, baina *Basumenea* forma hobetsi da aurreko hori arrotzegia edo “desberdinegia” zelakoan, bata bestearekin lotzea zail bihurtzeraino agian. Beste batzuetan, delako baserrian ez bada inor bizi eta norbanako bati gatazkarik sortuko ez dion kasuetan, dokumentuetako forma zaharrari ere eutsi zaio: *Kordoban* jaso da, esaterako, *Kordaun* esaten zaion baserriaren kasuan.

- Era jakin batean idazteak ez du esan nahi inori proposatzen zaionik horrela ahoskatu edo esan behar duenik; gauza

ezberdinak dira, eta jendeak, normala den bezala, beti bezala ahoskatzen eta esaten jarraituko du ziurrenik.

- Irizpide erabatekoa eta doi-doia izatea ere ezinezkoa da; izan ere, bai dokumentuetan eta bai ahozko erabileran, askotan modu eta erabilera ezberdinak aurkitzen ditugu. Batera jo edo bestera jo, askotan gertatzen da aukera ezberdinak daudela eta alde batera edo bestera erabaki beharra.
- Absurduak edo oso forma arrotzak saihesteko ahalegina egin da, baina idatziak hizkuntzari, jatorrizko formari eta etimologiari nolabait eusteko zeregina ere baduela balioetsi da, ezagutza eta informazio bat ere eskaintzen duelako eta kulturalki ere interesgarria delako. Horregatik, esaterako, *Auspagiñenea* forma, “u” hori berreskuratuta, jendeak *Aspain* esan arren. Segi dezake jendeak horrela esaten, segiko du eta ez da bestelako deus proposatzen, baina idatziz bestela jaso da.
- Dokumentu zaharrek bi forma edo gehiago ematen zituztenean, gaur egungo ahozko erabilerarekin bat datorrena hautatu da, horretarako aukera egon denean (Arrixenea/Arretxenea, Artxekonea/Artxikonea, Boxekanborda/Boxikanborda...)
- Koherentziaz jokatzeko ahalegina egin da “borda” hitzaren kasuan, eta base-

rrien izenetan lehenengo osagaiari lotuta ematea erabaki da kasu guztietan, denetan berdin jokatzeko.

- Mendi, paraje, erreka... eta horien izenen forma finkatzeko erreferentzia nagusia Nafarroako Gobernuaren toponimia ofiziala izan da, liburu batean argitaratuta dagoena. Normalean horiko ereduari jarraitzea izan da irizpidea. Zenbaitetan gaurko ahozko erabileratik aldentzen da, baina gogoan izan behar da, lehen esan dugun moduan, idatzizko euskarri batez ari garela, inori ez zaiola eskatuko izenak horrela ahoska ditzan, eta izen horiek era batean edo bestean jasota edukitzeak ez duela etxeen edo baserrien izenek duten kutsu, interes edo irakurketa pertsonala. Errazago eutsi zaio, kasu horietan, idatziz eta dokumentuetatik jasotako forma zaharragoei.
- Ez dago, jakina, denak pozik eta gustura uzteko formularik, eta ez dago %100ean koherentea izan den irizpiderik. Denak ados egotea eta %100 koherente izatea nahitaezko baldintza balitz, ziur asko ez genuke maparik eta errotulurik izan. Nolanahi ere, eta sortu diren zalantzak zalantza, lan handia eta interesgarria egin da, eta herriko aberastasuna gorde eta mantentzeko beste urrats bat, hurrengo belaunaldiek ere jaso dezaten.



IPARMANK

Iparmank. Ia-ia super-heroi baten izena ematen du, baina ez du horrekin inolako zerikusirik. Iparraldeko Mankomunitatearen izenaren nolabaiteko laburdura da, alegia, gure eskualdeko euskara mankomunitatearen izenaren laburdura.

Izen hori dauka, hain zuzen ere, eskualdeko euskara mankomunitateak duen webgunea. www.iparmank.org helbidean aurkitu dezakezue, eta orainxe azalduko dugu bertan zer ikus dezakezuen. Edukiak ezagutzeko modurik onena, jakina, bertara joatea da. Esan dezagun, nolana ere, gaur egun iparmank.org baldin bada ere, euskalgintzako eta kulturgintzako beste hainbat erakundek bezala .eus domeinura pasatzeko aukera aztertu behar duela eskualdeko mankomunitateak ere. Onartuz gero, iparmank.eus izanen da gurea.

Iparmank.org webgunea 2013. urtean jarri zen sarean, prestatzeko lan luze baten ondoren. Iametzta enpresarekin egin zen proiektua, eta gaur egun Mankomunitateak berak kudeatzen du oso-osorik, euskara zerbitzuaren bitartez. Helburua nahikoa argia izan zen

hasieratik: Euskara Mankomunitateak leiho bat irekitzea Interneten, eta sarean presente egotea. Zertarako? Bada, gure Mankomunitatearen berri emateko, gure eskualdea eta euskara lotzen dituen gune bat edukitzeko, euskararen inguruko berriak emateko —eskualdekoak nahiz orokorrak—, gogoeta bultzatzeko, herritarrei euskararen inguruko baliabideak eskaintzeko...

Helburu ugari, ikusten denez, baina helburu orokor baten norabidean guziak ere: euskara sustatzea. Izan ere, Euskara Mankomunitateak egiten dituen gauza guziak, logikoa denez, euskara sustatzea dute helburu, horixe da ekintza eta jarduera guzien iparra.

Hor dago webgunea, denen eskura, eta hemendik zuek denok animatu nahi zaituztegu bisita bat egitera. Sartu bertan, kuxkuxeatu, eta ziur aurkituko duzuela zuen intereseko zer edo zer: albisteak, baliabide praktikoak, informazioa, argitalpenak, gogoetak...

Jakina, webgunea ezagutu eta horren inguruko ekarpenik egin nahi izanez gero (kritikak, hobekuntzak, proposamenak, iritzia...), lasai asko egin dezakezue eta

guk oso pozik hartuko dugu. Hona bidal dezakezue: laga@iparmank.org

WEBGUNEAREN EGITURA ETA EDUKIAK

Webgunearen egiturak helburuei erantzuten die, noski. Dauden atalen bitartez, beraz, lehenago aipatu ditugun helburuak landu nahi ditugu.

Hasierako leihoaren ezkerreko aldean menu bat agertzen da, eta hor daude web-orrialdeko eduki guztiak, berehala aipatuko ditugunak. Hortik bertatik joan daiteke nahi duzun atalera. Orrialdearen erdian, nabarmenago, *albisteak* eta *gogoeta* atalak ditugu. Ezkerreko menuan ere badaude, baina horiek dira gehien berritzen direnak eta, nolabait esateko, webgunean protagonismo berezia dute. Euskararen inguruko berriak jasotzen ditugu *albisteak* atalean, bai bertakoak eta bai orokorrak, eta euskararen inguruko hausnarketak *gogoeta* atalean. Agerian daude albiste eta gogoetako horietako batzuk lehendabiziko leiho horretan, baina orain arte argitaratutako guztiak kontsulta daitezke “albiste gehiago

ikusi” edo “artikulu gehiago ikusi” ikonoen gainean klikatuz gero.

Eduki nagusi horiez gain, badaude beste hainbat atal. Ikus ditzagan banan-banan:

Euskara Mankomunitatea. Euskara Mankomunitatearen inguruko argibideak ematen dira: zer den, historia eta ibilbidea, egitura, estatutuak, egoitzak eta helbideak... Horretaz gain, mankomunitatearen urteroko planen egitura, atalak eta alorrak zein izaten diren ere azaltzen da.

Albisteak. Lehen aipatu dugu albisteen atala, bertara hemendik ere sar daiteke.

Gogoeta. Gogoeta sustatzeko sortutako atala da. Hasierako orrialdetik ere zuzenean joan daiteke. Idatzizko artikuluez gain, irratsaioak entzuteko atala ere badu. Azken horretan oraingoz bi irratsaio besterik ez daude, proba gisa jarritakoak.

Agenda. Ekintzen, jardueren, ekitaldien... agenda, gehienbat euskararen eta kulturaren alorrekoak. Gure eskualdean antolatzen direnak jasotzen dira normalean, eta tarteka baita Euskal Herri osorako antolatzen direnak ere.

Udalerrikiak. Euskara Mankomunitateak 12 udal biltzen ditu, eta atal honetan udal horien guztien inguruko datu eta jakingarri batzuk ematen dira.

Euskaraz bizi. Euskaraz Bizi atalak Mankomunitateak euskara zerbitzuen bitartez lantzen dituen egitasmo batzuk jasotzen ditu: *Etxepare Saria, Euskarazko Produktuen Katalogoa, Familia eta euskara, Haur eta gaztetxoan aisialdia, Merkataritza eta lan mundua, Udaltako erabilera planak, eta Irakurri, gozatu eta oparitu*. Egitasmo horiek zer diren azaltzen da, eta egitasmoarekin

lotutako materialak edo estekak ere bertan daude.

Dirulaguntzak eta deialdiak. Euskararekin zerikusia duten hainbat laguntzen berri ematen da atal honetan, eta laguntza horiek eskatzeko agiriak edo estekak eskuragarri daude: euskarazko udalekuetarako laguntzak, euskara ikasteko bekak, Bai Euskarari Ziurtagiria duten entitateentzako laguntzak, Nafarroako Gobernuaren deialdiak...

Argitalpenak. Atal honetan Euskara Mankomunitateak eta eskualdeko udalek zuzenean edo beste norbaitekin lankidetzan kaleratu dituzten edo diruz lagundu dituzten hainbat argitalpenen berri ematen da, eta zenbait kasutan argitalpen horiek eskuratzeko edo deskargatzeko esteka ematen du. Esate baterako, *Marmari* aldizkariaren zenbaki guztiak eskura daitezke bertan, pdf formatuan. Horiez gain, gure eskualdeko aldizkariak (*Xapo, Panpanoziri, Miaxiria*), Mankomunitateko beste eskualde batzuetakoak (*Mailope* eta *Pulunpe*), haur jaio berriei eta txikienei etxera bidaltzen zaizkien “Duzun onena”, “Jolastuko gara” eta “Bakoitzari berea” liburuxkak...

Eragileak. Gure eskualdean euskararen, hezkuntzaren eta euskal kulturaren inguruan lanean ari diren hainbat eragilearen erreferentzia aurkitu daiteke hemen. Bilatzaile bat dago, eta hor eragilearen izena jar daiteke, edo bestela eremua hautatu (hezkuntza, komunikabideak...) eta horretan ari diren eragileak aterako dira. Eragile bakoitzaren inguruko datu batzuk agertuko dira bertan, baita Interneteko esteka ere halakorik dagoenean.

Baliabideak. Atal praktikoa eta oso lagungarria da euskaraz bizi edo lan egin nahi duenarentzat. Hainbat baliabide daude bertan, guziak ere Internetekoak,

hainbat eremutan antolatuta: hiztegi orokorrak eta bereziak, idazteko aholkuak eta laguntza tresnak, euskarazko hedabide lokalak eta nazionalak, euskarazko produktuak, euskalgintzako erakundeak, Euskaltzaindiaren arauak, merkataritza alorreko materialak, kirola eta euskara, gramatika, toponimia, euskarazko softwarea, itzultzaileak, soziolinguistika, blog bereziak, euskara ikasteko baliabideak eta euskaltegiak, euskalkiak eta ahozkotasuna, aisialdia eta gurasoak, hezkuntza, literatura, musika, zinema eta telesailak euskaraz...

Euskara eskualdean. Euskararen egoera gure eskualdean zein den eza-gutzeko zenbait dokumentu eta informazio aurkituko duzu hemen. Egoeraren deskribaketa orokorrak gain, eskualdean bertan egin izan diren zenbait neurketa edo azterketa zehatz ere jaso dira, euskara eta euskararen osasuna zertan diren jakiten lagunduko digutenak.

Hizkuntza eskubideak. Herritarron hizkuntza eskubideekin lotura duten zenbait dokumentu daude atal honetan, bertako legediaren ingurukoak batzuk, nazioarteko legeak edo proposamenak jasotzen dituztenak besteak.

Ba al zenekien? Euskararen edo hizkuntzen inguruko jakingarri interesgarriak edo bitxiak aurkitu dituzue hemen, batzuk eskualdetik bertan jasoak eta beste asko handik edo hemendik eskuratutakoak.

Multimedia. Mankomunitatea osatzen duten herrietako zenbait argazki.

Ahozko ondarea. Bertako hizkera ezagutzeko eta bertako euskaraz grabatutako lekukotasunak entzun ahal izateko Interneteko esteka batzuk daude hemen: Ahotsak.com, Nafarroako ondare ez-materialaren artxiboa eta Nafarroako Euskara Mediateka.

LEITZA

Idoia Zabaletaren begietan

Argazkilaria da Idoia Zabaleta, eta milaka argazki dauzka han eta hemen eginak eta argitaratuak. MARMARI aldizkariak eskatuta Leitza egindako argazki batzuk utzi dizkigu, bere begiek Leitza nola ikusten duten nolabait erakusteko: familia, lagunak, txokoak, natura, kultura, festa... horiek denak dira Leitza Idoiarentzat, eta horren erakusgarri ederra eskaintzen digute irudi dotore hauek. On egin!





Mari Jose Barriola



«Zuraren inguruan metatutako ezagutza eta ondare ikaragarria dago»

Mari Jose Barriola leitzarra dugu elkarrizketa honetako protagonista. Elordi etxekoa da, eta 1972an jaioa. 14 urte zituela Iruñera joan zen ikastera eta bertan egin zituen Nekazal Ingenieritzako Tekniko eta Agronomia Goi mailako ikasketak. Leitzan bizi zen 1998an Lesakara joan zen arte. Gaur egun Tknika, Lanbide Heziketarako Berrikuntza Zentroan lan egiten du.

Irakaslea da lanbidez Mari Jose, baina eskolak emateaz gainera egiteko

gehiago ditu esku artean azken urteotan. Proiektu interesgarri baten bultzatzaile eta arduraduna da, eta bereziki horren inguruan galdetu nahi izan diogu elkarrizketa honetan. “Euskal Herriko zuren ezaugarritze proiektua” du izena proiektuak, eta horren bitartez lanbide heziketarako material didaktikoa sortu nahi izan dute, irakasle eta ikasleek erabili ahal izan dezaten. Horretaz gain, Euskal Herrian asko erabili izan den zur mota batzuk ikertu nahi izan dituzte: alertze japoniarrarena, Douglas izeiare-

na, eta Korsikako larizioaren zurak hain zuzen ere. Europatik zura erabiltzeko zenbait ezaugarri eskatzen dituzte, eta zur horiek eskakizun horiek betetzen saiatzen dira proiektu honetan. Besteak beste, zur horren erabilerari bultzada bat emateko eta zuraren industriak hobera egin dezan laguntzeko.

Mari Josek eta bere lankideek egin dituzten ikerketa-lanetan, bestalde eta bidenabar, aspaldiko kontu bat argitzen laguntzeko saiakera ere egin nahi izan dute. Gauza jakina da gure aitona-a-

monek eta gurasoek, baita gaur egun menditik egurra ateratzen aritzen den askok ere, egurra ateratzeko garaiari buruz zer esaten duten: ez dela berdin garai batean edo bestean egurra ateratzea, eta, esate baterako, ilargiaren faseei ere begiratu behar zaiela, ilbehera edo ilgora den kontuan hartuz. Herri jakinduriak hala omen dio. Badago, ordea, ilargiaren faseen eragina zalantzan jartzen duen asko, mundu akademikoan eta zientifikoan batez ere. Gai horretaz ere ikertu dute Mari Josek eta beraren proiektukideek, eta ikasi duenaren inguruan ere galdetuko diogu.

■ **Nekazal Ingeniaritza Teknikoa eta Goi Mailakoa, horiexek zure ikasketak. Zure lana ere, irakaskuntzaren alorrekoa den arren, naturarekin, zurarekin... lotuta dago. Zerbaitek eraman zaitu, ziur asko, bide horretatik, bai ikasketetan eta bai lanean. Zer da bide horretatik bultzatu zaituena?**

Betidanik izan dugu etxean naturarekin lotura, naturari buruzkoak eta mendiko lan kontuak beti aditu ditugu etxean txikitatik. Eta betidanik gustuko izan dut egurra eta zuraren inguruko lan hau burutzea. Niretzat, lanaz gainera, profesionalki eta pertsonalki ere esperientzia ikaragarria izan da. Laguntza handia izan dudala aitortu beharra daukat eta eskerrak eman behar dizkiot nirekin lanean ibilitako lan taldeari, batez ere Gipuzkoako Foru Aldundiko ingeniari teknikoak den Bixente Dorronsorori eta berak zuzendutako mendiko lan taldeari.

■ **Tknika, Lanbide Heziketarako Berrikuntza Zentroan egiten duzu lan gaur egun. Aurretik beste inon aritua zara? Labur bada ere, zure ibilbide profesionala azalduko diguzu?**

Nire ibilbidea formakuntzaren eta ikerketaren alorrean osatu dut batez ere, eta ia-ia beti zuraren inguruan. Nafarroako



Basozainek zuhaitzak bota ondoren neurketak egiten dituzte.

«Betidanik izan dugu etxean naturarekin lotura, eta betidanik gustuko izan dut egurra eta zuraren inguruko lan hau burutzea»

Gobernuarentzat eta Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioarentzat egin dut lana trebatzaile eta irakasle gisa, baina horretaz gain industriaren sektorean ere formakuntza ematen ari izan naiz, lan arriskuen prebentzioan esate baterako. Esan bezala, formakuntzaz gainera berrikuntza eta ikerketa proiektuetan parte hartu izan dut, zuraren ezaugarrien, kalitatearen, aplikazioaren eta erabilera-aren inguruan normalean. Horretaz gain, atzerriko erakundeekin aritzeko aukera ere izan dut, esate baterako Suitzako Bern University of Applied Sciences Architecture, Wood and Civil Engineering delakoarekin, ilargiak zuraren kalitatean duen eragina aztertzen.

■ **Bidasoa Institutuko langilea zara gaur egun, eta Zurgintza eta Altzarigintzako Mintegiak proiektu bat osatu zuen, duela urte batzuk, zu tartean zinela bultzatzaile eta arduradun. Zein da proiektu horren helburua, eta zein dira proiektuaren nondik norakoak?**

Gure proiektuaren helburu nagusia zuraren inguruko aplikazio informatiko bat sortzea izan da. Aplikazio horren barranean formakuntzarako Eskuliburu Tekniko bat dago, zuraren erabilera estrukturalari buruzkoa.

Aplikazio informatikoak 6 atal dauka, eta horietako bakoitzean zurari buruzko eduki batzuk jasotzen dira: basoen kudeaketa; zura identifikatzea eta aztertzea; zura nola prozesatzen den; zuraren CE markaketa eta sailkapena; zura nola ezaugarritzen den; zurezko egituren diseinua... Aplikazio hori Interneten dago, <http://normadera.tknika.net> helbidean.

Horretaz gain, proiektuak baditu beste helburu batzuk. Adibidez, zenbait zuhaitz espezieren zuraren ezaugarriak jasotzea eta sektorerako teknologia berriak ekartzea, zutik dagoen zuhaitzaren zura sailkatzeko eta estandarizatzeko uhin bidezko teknika batzuk erabiliz. Bai-



ta zuraren erabilera egokia bultzatzea ere, iraunkortasun irizpideen arabera. Zuraren berezko iraunkortasuna eta zenbait organismorekiko (xilofagoak) erresistentzia aztertzea, ilargiak zuraren kalitatean duen balizko eragina kontuan izanda. Sektoreko eragileen arteko komunikazioa eta formakuntza hobetzea, herri jakinduriak esandakoa jasoz...

■ **Proiektu handia dirudi, jakina, dirulaguntza ere beharko zuen handik edo hemendik.**

Bai. Laguntzaile batzuk izan ditugu. Eusko Jaurlaritzatik Berrikuntza eta Elikagaien Industriako Zuzendaritzak eta Lanbide Heziketarako Sailburuordetzak lagundu digute, baita Gipuzkoako Foru Aldunditik Berrikuntzako, Landa Garapeneko eta Turismoko Departamentuak eta Nafarroako Gobernuako Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioiko Departamentuak ere.

■ **Eta zein da proiektuaren emaitza? Atera dituzuen ondorioak, datuak eta informazioa zertarako erabiltzeko dira?**

Hasteko, eta gure helburu didaktikoa kontuan izanda, proiektuak balioko du bertako zuren ezaugarriak zein di-

ren jakiteko eta haien erresistentzia neurtzeko, eta horri esker zura merkaturatu ahal izanen da eta egituretarako erabili ahalko da. Izan ere, hori egin gabe ezin da zur hori eraikuntzarako erabili, esate baterako. Arkitektoek eta preskriptoreek, horrenbestez, zur hori beren proiektuetarako erabili ahal izanen dute, eraikuntza alorreko araudiak jartzen dituen baldintzak eta eskakizunak betez. Hori guztia, besteak beste, funtsezkoa izanen da zerrategientzat.

Era berean, zura iraunkortasuna laguntzen duen materiala da, eta berri-zagarria, eta horren inguruko heziketa indartu nahi da, basoen kudeaketa egokia egiteko eta basogintzako eta zurgintzako sektorearen formakuntza eta berrikuntza indartzeko. Bertako zura erabiltzen duten enpresetan ingurumenaren gaineko eragina neurtzen duten ikerketak egitera bultzatuko dute proiektuaren emaitzak.

Soinu bidezko teknikak erabiliz, egurra basoan bertan sailkatuko da, haren kalitatea neurtuz, eta lortutako emaitzak laborategian lortutakoekin alderatuko dira, basoen ustiapena hobetzeko.

Egindako entseguek egurraren iraupena neurtzeko aukera emanen digute eta, aldi berean, ilargiaren faseak egurra

«Ikusi ahal izan dugu proba horietako batzuetan alde esanguratsuak zeudela ilbeheran eta ilgoran moztutako zurean»

mozteko garaian izan dezakeen eragina zehazteko emaitzak lortzen ari dira. Zuraren erabilera eta aplikazioez herri jakinduriak dioena bilduko da, bertako zura erabiltzeko moduak eta teknikak berreskuratzeko, eta ikusentzunezko materiala osatuko da, basogintzarekin eta zurarekin erlazioa duten hainbat lagunen elkarriketekin eta kolaborazioekin.

Proiektu honek, bide batez, diziplina ezberdinetan ari diren hainbat lagun elkarlanean jarri ditu, ekipo bat osatuz, eta lanbide heziketako zentroen, erakunde publikoen, zentro teknologikoen, unibertsitateen eta sektoreko enpresen arteko lankidetzaren ere ekarri du.



■ **Beste gai interesgarri bat ere landu duzu zure azkeneko urteotako lanean eta ikerketetan. Herri jakinduriarekin lotuta dago, eta arestian ere aipatu duzu. Hainbestetan entzun dugun ilargiaren eraginaren kontu hori, alegia, zuhaitza botatzen denean ilargiari begiratu behar zaiola... Nola aztertu duzue hori guztia?**

Proiektuaren zabalatasuna aprobetxatuz, esan bezala, izeia eta alertzearen zura mozteko garaian ilargiak izan dezakeen eragina ere aztertu da. Helburu horrekin, zuhaitzak ilargiaren bi fase ezberdinetan moztu dira (espezie bakoitza ilbeheran eta ilgoran moztu da). Gaur egun, Korsikako pinu larizioarekin ere lanean ari da, eta Euskal Herrian zuraren erabileraz eta aplikazioaz herri jakinduriak dioena jasotzeko lana ere egin nahi da.

Orain arte egindako lanetan eta probetan europar araudia erabili da, eta ikerke-

tetan urrats ezberdinak egin dira: onddo eta intsektu mota ezberdinen aurrean egur horrek nolako erantzuna zuen aztertu da, zurak ura nola xurgatzen zuen eta nola lehortzen zen begiratu dugu...

Ikusi ahal izan dugu proba horietako batzuetan alde esanguratsuak zeudela ilbeheran eta ilgoran moztutako zuraren. Proben zati bat oraindik bukatu gabe dagoen arren, batzuen eta besteen artean dagoen aldea ikus dezakegu dagoeneko.

■ **Gure aurrekoek kontatu digutena, haien uste horiek, eta zure ikerketak erakutsi duena, nahikoa iruditzen al zaizu ilargiaren eragina erreala eta ziurra dela esateko?.**

Ilargiak, lurretik hain hurbil dagoena, errespetu handiz ikusi izan da, asko begiratu izan zaio, eta milaka urteko historia duten herriek beti izan dute kontuan. Maiek, aztekek eta inkek denbora ilargiaren zikloen arabera neurtzen

zuten. Egin zituzten interpretazioak gorabehera, herri guztiak saiatu dira hura ezagutzen eta bizian duen eragina ulertzen. Nekazaritzan, mila urte dituen ezagutza hori transmititu egin da eta eguneroko praktika bihurtu da.

Zura da historiako baliabide naturalik zaharrena eta gizakiak hamaika erabilera eman dizkio milaka urtean zehar: erregaia, erreminta, lanabes, altzari, makineria, etxebizitza, itsasontzi eta era guztietako eraikinak egiteko materiala...

Gure gizartearen ordea, material sintetikoak hedatu dira eta arrotzak zaizkigu iraganean basoarekiko eta horren zurarekiko zuten mendekotasuna, eta mende askotan zuhaitzekin izandako harreman etengabe eta trinkoak emandako jakinduria izugarria.

Zuraren inguruan eta esperientzian oinarrituta belaunaldiz belaunaldi metatutako ezagutza eta ondare ikaragarria dago. Garai batean ezin hobeki ezagutzen zituzten baso-espezieak, zuraren zuntzen kalitatea eta erabilera, zuhaitza bota beharreko sasoi, zura ahalik eta hobekien aprobetxatzeko eta naturak emandako balio horri etekin handiena ateratzeko lehortzeko sasoi eta teknikak zein ziren...

■ **Zuraz ari gara elkarrizketa honetan, hemen betidanik erabili izan den material batez hain zuzen. Bertan izan dugu beti, eskura, eta hura erabiltzeko hamaika modu izan ditugu. Garaiotan, berriz, eta aspalditik heldu den korronea da, beste material batzuk erabiltzen dira gauza askotarako, eraikuntzan esaterako. Zer esanen zenuke horretaz? Nola ikusten duzu zuraren nahiz basoen egoera eta etorkizuna?**

Zura material errentagarria da, eta gure inguruko herrialderik aurreratuenetan, Erresuma Batuan, Eskandinavian, Ale-



manian, Japonian eta Kanadan..., asko erabiltzen da eraikuntzako lanak ongi eta modu errentagarri batean egiteko.

Zura ateratzeak, lantzeak eta lanerako erabiltzeak, beste material batzuek ez bezala (aluminioa, altzairua...) oso energia gutxi eskatzen du. Material lehiakorra da eta, teknikoki berdin bali duenez, lehenetsuna eman beharko litzaioke, energetikoki kostu txikia duelako. Kontua ez da gainerako materialak baztertzea, hori ez baita bideragarria, ezta beharrezkoa ere, batez ere egitura jakin batzuetan. Kontua da zenbait materialen energia-gastua murriztea eraikinak horretarako aukera ematen duenean. Eraikuntzan zura erabiliz gero, atmosferara isuriko dugun CO₂ kopurua txikiagoa izanen da, beste material horiek sortu eta garraiatzeko behar den energia handiagoa delako.

Zurak erresistentzia eta arintasun handia dauka bere egituraren eta osaera kimikoaren ondorioz. Gizakia askotan saiatu da zuraren egitura material berrietan kopiatzen. Eta zurak, gainerako materialek ez bezala, ez du kutsatzen, material garbia da eta oso lagungarria

da ingurumena garbitzen. Zuhaitzek, hazten direnean, arnasa hartzen dute eta atmosferako CO₂ kopuru oso handiak xurgatzen dituzte, oxigenoa eta ur-lurruna botatzeaz gainera. Eguzkiaren argiari esker zuhaitzak arnastutako CO₂a zur bihurtzen du, gas hori mendeetan zehar bahituz. Aldaketa klimatikoa eragozten ere laguntzen du zuraren erabilerak.

Horretaz guztiaz gain, zuraren aprobetxamendua erabatekoa da, ez du hondakinik uzten. Azpiprodotu guztiak erabil daitezke: energia eta beroa sortzeko, era guztietako oholak egiteko, konposta sortzeko. Erraustak ere erabil daitezke, toxikoak ez direnez nekazaritzako lurak ere ongarrizko balio baitute. Horregatik guztiagatik, zura da bere sorkuntza prozesuan energia gutxien behar duen materiala.

Dituen ezaugarrien ondorioz, gizakiak egiturak osatzeko asko erabili du zura milaka urtez. Erresistentzia ona dauka, arina da, suari erantzuteko duen modua, material osasuntsua da, berriztagarria... Horiek dira gaur egun zura eraikuntzako material gisa erabiltzen jarraitzeko arrazoi nagusiak. Eta, gai-

nera, lehengaiak agortzen diren mundu batean, zura baliabide naturala eta agorreza da, egoki kudeatuz gero.

Askotan bestela uste dugun arren, zuraren erabileraren eta oihanak sunsitzearen arteko erlazioa alderantzizkoa da. Izan ere, herrialdeen garapen ekonomikoa zuraren erabilera handiagoa dakar, eta horrek oihanak mantentzea eta handitzea izaten du ondorio. Inguru epeleko basoetan, eta bereziki Europakoetan, egin diren inbentarioen arabera, basoen azalera urtez urte handitzen ari da.

■ **Eta bukatzeko, zertan da une honetan zure ikerketa, eta aurrera begira zer aukera ikusten duzu gisako lanekin jarraitzeko? Nondik jo nahiko zenuke?**

Momentu honetan, Woodnika deituriko proiektua jarri dugu martxan. Aurten, Korsikako larizioaren ezaugarritzean ari gara lanean eta lehen aipatutako lan esparru berdinekin jarraituko dugu, hau da, egurraren ezaugarritzean, iraunkortasunaren ikerketan, formakuntzan eta egurrez osatutako produktu berrien garapenean.

Leitzako umeen idatziak

Umeen Deia aldizkarian

Gaur egun Leitzako ume batek euskaraz irakurri nahi baldin badu, zorionez, badauka nahi-koa aukera. Erdarazko irakurgaien ondoan euskarazkoak urriagoak badira ere, euskaraz egin nahi duenak badu non aukeratua. Hori ez da beti horrela izan, jakina, oso atzera joan gabe euskararentzat garai zailagoak aurkituko baititugu. 50 bat urte atzera eginez, esate baterako, euskaraz idatzi eta irakurri nahi zutenek panorama oso beltza zuten. Frankismo bete-betean zeuden orduan, eta euskara oso-oso baztertua. Bazen, ordea, jende euskaltzalea eta amore emateko asmorik ez zuena. Horietako batek hain zuzen ere, Aita Felipe Murietaoak (Francisco Torres, 1897-1966), bultzatu eta sortu zuen *Umeen-Deia* izeneko aldizkaria, eta bertan aurki ditzakegu zenbait ume leitzarrek idatzitako kontuak.

50 urte inguru joan dira gazte-txo leitzar haiek idatzitako gauzak argitaratu zirenetik. Pasa dira urteak, eta kuriozoso da gaurko egunetik haiek esandakoak eta gauzak esateko modua ikustea. Horregatik ekarri ditugu hona aldizkari hartan argitaratutako batzuk, *Marmari* aldizkariaren gaurko irakurle gazteek eta ez hain gazteek —testu haiek idatzi zituztenetako batzuk tartean, akaso—, ordukoa ezagutu edo gogora dezaten.



Aldizkariaren azala.

Kontuan izan orduko ume leitzar guztiak erdaraz eskolatzen zirela. Euskara batua bera ere ez zen oraindik sortu edo osatu, eta euskaraz idazten jartzeko lana gaur egun baino puskaz zailagoa izanen zen. Ez zuten meritu makala orduko giro horretan euskarazko idatzitxo horiek idatzi zituzten ume haiek. Idazkeran bertan ere, gaur harrigarri eginen zaizkigun detaileak edo idazteko moduak ikusiko ditugu, baina noiz idatzitakoak diren kontuan izanda, guztiz logikoa da gauzak hala agertzea. H-rik ez zuten erabiltzen, noski, eta aditzak-eta idazteko garaian ere gaurko modutik urrun zebiltzan.

ALDIZKARIAREN INGURUKO ARGIBIDE BATZUK

Aldizkaria, esan bezala Aita Felipe Murietaren bultzadak sortu zuen. Lizarra ondoko Murieta herrikoa zen bera, erdalduna sortzez eta gerora euskaldun bihurtu zena. Kaputxinoa zen, eta urte askoan ibili zen han eta hemen, Amerika eta Espainia aldean. Euskara ikasi zuen, eta euskara sustatzea izan zen bere kezka eta lan handietako bat. Makina bat lan idatzi zituen, baita horietako batzuk argitaratu ere, eta berak egindako lanez gain beste batzuenak ere bultzatu edo argitaratzen lagundu zuen.

Artikulu honetan aipatzen ari garen aldizkaria Aita Murietaren kemenaren ondorioa da. Euskaltzalea zen bera, esan bezala, eta 1957ko maiatzaren 17an *Príncipe de Viana* elkarteak Etxaleku herrian antolatutako jaialdi baten inguruan sortu zen ideia eta ekimena. Umeek euskara ezagutu eta erabiltzea lehentasunezkoa zen Aita Murietarentzat, eta horretarako bide bat aldizkari bat egitea izan zitekeela pentsatu zuen.



Aita Felipe Murieta.

Ez zuten meritu makala euskarazko idatzitxo horiek egin zituzten ume haiek

Aldizkariaren asmoa honela adierazi zuen Aita Murietak berak:

“Aurrek: zergatik egon bear duzue zuek beti ixillik? Noiz bat itz-egin bear duzue aundiek bezala. Nai dugu jakin zuen errietako berri. Bidali lanak zuek berberak idatziak eta firmatuak, esanez gañera zenbat urte duzien. Igorri dizki-gute erri zenbaitzuetatik, baño nai dugu egin dezazuten euskalerrri guzietako mutiko edo neskatiko euskaldunek. Guk ezarriko dugu gero inprentan”.

Pentsatu eta egin. Aldizkari horretan umeak ziren protagonistak, umeen esa-

nak edo idatziak bildu behar zituelako batez ere. Ume euskaldun horietako batzuk gure eskualdekoak ziren, leitzarrak tartean, eta horixe da hona ekarri dugun lekukotasuna.

Aldizkariak hasieratik bertatik Nafarroako Diputazioaren laguntza jaso zuen. Baimena eskatzera joan zenean, Ignacio Baleztenak eta Pedro Diez de Ultzurrunek lagundu zioten, eta Jaime Del Burgorekin hitz egin zuten. 5.000 pezetako diru laguntza izaten zuen urtero Díez de Ultzurrunen gestioei esker. Aita Murietak berak esaten zuenez, nolana ere, euskaltzale eta laguntzaile talde zabal baten emaitza izan zen *Umeen Deia* aldizkaria argitaratzea: babesleak, euskaltzaleak, maisuak eta maistrak, gurasoak, euskal umeak...

Aldizkaria lau orrialdeko argitalpena zen, doanekoa, eta Euskal Herriko hainbat

tokitara 4.000 ale banatzera iritsi zen. Guztira 65 zenbaki argitaratu ziren, 330 orrialde, 1.500 kolaborazio inguru, 885 idazle txiki. Euskal Herriko haur euskaldunen idatziak biltzen zituen aldizkariak, esan bezala, 1959an argitaratu zuen lehendabiziko zenbakia eta 1965eko udazkenean azkenekoa. Hurrengo urtean, 1966.ean hain zuzen, sortu zen *Kili-Kili* aldizkaria Bizkaian, eta hark hartuko zion txanda, neurri batean, *Umeen Deia* aldizkariari.

Ondoren heldu diren pasarte hauek aldizkari hartan argitaratutako zenbait leitzarren idatzi laburrak dira. Leitzatik bidalitako pasarteak 11 dira eta, labur beharrez, horietako 5 besterik ez ditugu ekarri, itxura hartzeko nahikoa izanen delakoan. Aldizkari guztiak biltzen dituen liburua Leitzako liburutegian kontsulta daiteke oso-osorik, nahi izanez gero.

Leitze da erri bet politta aundi xamarra etxe txuri askokin; nerek “Etxeberrie” izena do.

Iruñarra naiz, eta euskeraz badakit.

Emengo pestak ederrak die. Bezperatik ekarri zituen zezenak. Baitere etorri zien Tolosa´ko soñu yotzalek; kiliki buruaundik laixterraldi ederrik egiñazi ziguen beren maskuriñ buruko ederrak artuz. Deun Tiburtzio egunen Meza nagusi ederra, ezpata-dantzarik aldare aurren. Meza ondoren, on dantza aldie, pillota yokoa eta eresi-soñue.

Bazkari ona; atsalden dantzatu giñen asko. Goize-tan zezenakiñ yostaketak ait larri batzutan. Azkeneko egunen “Ingurutxo” oso ederki.

Urrengo arte.

Ardanaz eta Azpiroz´tar Miren Josune.

— Nere umetxu maiteak: Gaur da nik lendabiziko UMEEN DEIA´n idazten dotela. Eta nere lerro ok zuen asmoak berotu eta indartzeko izango dira.

Asko poztutzen naiz zuen kontu eta ipuinak irakurri-ta. Denak aiñ ederki idazten baitituzue. Zuek UMEEN DEIA´ra idaztearekin Euskera bizkortu egiten da, eta au da guretzat itxaropenik aundiena. Ba dakigu zuek idazten duzuen bitartean euskerik ez dela galduko, eta Euskera indartuko dezuten abe mardulak eldu zeratela. Zuek, umetxuak, UMEEN DEIA´n idazteakin bi gauz on egiten dituzue: lendabizikoa Euskera bizkortzea, eta bigarrena gure ipui ederrak yende guziari yakin araztea, eta betirako UMEEN DEIA´n idatzita uztea, gañerakoan denborarekin aztu egiten baitira.

Ume askotxok idazten dezute UMEEN DEIA´n; baño, nire ustez, ez bear ainbatek. Azkozere geiagok idatzi bear lukete. Euskeraz dakian ume bakar batek ez luke gelditu bear UMEEN DEIA´ra idatzi gabe.

Zuek, umetxoak, eman zuen laguneri UMEEN DEIA berak ere irakurri dezaten; eta esan berak ere idazteko zerbait UMEEN DEIA´n.

Denak zor diogula gure izkuntz maiteari, eta beraren alde zerbait ere egin bearra dagola derirorrez, negarrez iltzen utzi gabe.

Ni ere zuek baño zartxeagoa izanagatik, gazte-gaztea naiz oraindik. Euskerari diotan maitasunak eraginda nik ere ez gelditu nai zuei idatzi gabe.

Zabaleta´tar Batixte.

— Iru andre gaztek iru talo yokatu zituen ya zeñek erderaz geyo zekin.

Eta orduan batek esan zun:

— Nik bazekiñet “sí”.

Beste batek esan zun:

— Nik bazekiñet “no”.

Eta azkenekoak, ori aitzen, esan zun:

— “Sí” ta “no” ta “porque”tzat: iru talok netzat.

Eta orrek irabazi zun apustua.

Xabier.

Esnazalea. Erri aldera zien Pantxike esne saltzaillea: Bere buru gañean esne-poto aundi bat zeraman. Goiz ederra zan, eta Pantxika pozez zin.

— Esnea saldu, eta artzen doen dirukin —bere barrenean zion saski bet arrultze erosiko dot, ta txitxe biurtuko dire “pio, pio” egiñez. Olloak saldu, ta txerria erosiko det. Txerrie ongi gizentzen dodenean, poltsa diruz beteko dut. Gero bei eder baten yabe iñen naiz, noski. Bei orrek txekor eder bat iñen dit, eta olaxe aberats iñen naiz. Gero etxe politt bet erosiko dot.

Orrela pentsatuz alai alai zila, yo du arri koxkorbat, eta antxe ankaz gora Pantxike esne-potoa irauliak puska puska iñez.

— Agur nire esne, ollo txerri, bei ta etxea! — esan zuen.

Pantxike gaxoa nearrez yoan zen etxera. Attunak esaten dio;

— A! gaxoa!: diruk etzattu zorionduko; izan zattea langillea pakean da zoriontsu bizitzeko.

Zabaleta eta Labayen´dar Kontxita.

Intxaurra. — Atariko intxaur aundiaren itzalean yostetan zebiltzen bi mutil koxkor arkitu zuten intxaur bat.

— Nerea dok —zion Inaxiok— neonek ekusi dit lendabiziko.

— Ez — esan zion Txominek—: neretzat izanda, neronek arrapatu telako.

Bela sortu zen bien arten inkimanko izugarri bat. Lendabizi itz gorez, gero asarez, ta azkenez borroka. Ontan zeudela, eldu zan beste mutil indartsu bat, ta burrukari bien artean onela itz egin zuen:

— Tira, adixkideak! Geldi! Nik erabakiko dizuet gauz ori.

Eta intxaurre erdituaz, esan zioan: Azal erdi au lendabizi intxaurre ikusi dunarentzat; eta beste erdie lenbizi arrapatu dunarentzat. Mama neretzat bear da, gauza erabaki doelako premiotzat.

Zabaleta eta Labayen´dar Mikel Mari.

Topaketa feministetan erakusketa 2012.



Pelax eta Anttoniren kontzertua 2014.



Atekabeltz

herrigunea

Leitza herri bizia izan da, gaur egun ere hala da, eta etorkizunean ere hala izan dadin nahiko genuke denok. Guztion ahalegina behar da horretarako, jakina, denon artean egin beharreko zerbait da. Gogoaz gainera, hala ere, baliabideak eta azpiegitura ere behar dira herriari bizitasuna emateko eta bizitasun horri aterabidea emateko, eta horretarako ekarpen handia da Atekabeltz Herrigunea.

Urte askoan guardia zibilaren kuartela izan zen etxea, Atekabeltz izenarekin ezagutzen dugun hori, gaztetxe bihurtu zen zenbait urtez. Jende askok, oraindik ere, gaztetxearekin lotzen du eta hala deitzen dio. Eta Leitzaoko gaztetxea hor dago, hain zuzen ere, baina gaztetxea baino gehiago da gaur egun eraikin horretan dagoena. Atekabeltz Herrigunea dago bertan, eta artikulu honetan azalduko den bezala, herri eragileen eta herritarren gune bat da, hainbat talderi, dinamikari, jarduerari eta ekintzari tokia

eta lanerako aukera ematen diona.

ZER DA ATEKABELTZ HERRIGUNEA?

Topagune bat da Atekabeltz. Leitzaoko herri mugimenduaren eta kultura arloan lanean ari diren taldeen topagunea, hain zuzen ere. 2005ean hasi zuen bere ibilbidea —udan 10 urte beteko ditu—, ordutik hasi zen etxea auzolanean moldatzen eta ondoren etorriko zenari bidea irekitzen, 2005-2006. ikasturtean hasi baitziren harremanak herriko eragile ezberdinekin. Atekabeltzek, Herrigunerako proiektu gisa, 2012an bultzada handia jaso zuen, AtekaRockarekin batera. Hasieratik bertatik, beraz, etxea moldatzeko lanetatik hasita alegia, eta ondorengo ibilbide osoan, ekimen kolektiboa eta parte-hartzailea izan da.



EHL eta Askapenaren topaketak 2014.

Atekabeltz Herriguneak ematen dituen aukeren artean, bi hauek behintzat azpimarratzeko modukoak dira: herriko eragileei antolaketarako espazioa eskaintzen die, eta, horretaz gain, ekimenak eta ekintzak aurrera eramateko azpiegitura eta tokia eskaintzen du. Hutsune handi bat izan du Leitzaoko arlo horretan, eta Atekabeltzek alternatiba eta aukera bat ematen du.

Espazio fisikoa ematen du, beraz, baina hori bezain garrantzitsua da taldeen zein herritarren artean esperientziak elkarrekin trukatzeko eta ekimen berriak sortzeko bultzatzen duela. Alegia,



Talde eragileei Atekabeltz proiektuaren aurkezpena. 2012.

elkarlana eta sormena bultzatzeko tresna ere bada.

HELBURUAK

Ahalegin handia egin da Atekabeltz Herrigunea eraikitzen, eta horrek ere atzean helburu sendoak eta argiak behar zituen. Alde batetik, Atekabeltzaren jardunak bestelako egiteko modu bat sustatzen du, herri balioetan oinarritua: auzolanean, autogestioan, parekidetasunean, inguruarekiko eta pertsonetikiko errespetuan du oinarria. Denon artean egitea, eta herriaren beharrak ase eta erantzunak ematea. Eta, bestetik, gozameneko espazioa ere izan nahi du, kultur ekimenak burutzeko espazioa.

NOLA ANTOLATZEN DA?

Herrigunea da Atekabeltz, eta hainbat talde edo eragile ari da bertan jardunean. Hori ere, noski, antolatu beharra dago. Talde eragile bakoitzak bere berezko jarduna du, bere jardura propioa eta bere helburuak dauzka. Horretaz gain,

koordinaziorako egitura bat dago, batzorde bat hain zuzen ere. Eta batzorde hori arduratzen da etxeak azpiegituran dituen beharrez, ekimenen koordinazioaz, harremanez eta zenbait ekitaldiz. Batzordea bera talde ezberdinen artean osatuta dago.

Urtean zehar lanean ari diren talde horiez eta koordinazio batzordeaz gain, urtean zenbait aldiz Atekabeltzeko Batzarra elkartzen da. Hor egiten da dauden beharren azterketa, eta hor erabakitzen dira denoi dagozkien gaiak eta auziak.

AZKEN URTEKO BALORAZIOA:

Ibilbide bat egina du Atekabeltz Herrigunek dagoeneko eta esan liteke egonkortzen ari dela. Azken urteko ibilbideari begiratzea nahikoa da horretaz ohartzeko. Izan ere, 50 ekitalditik gora antolatu da Atekabeltz Herrigunean azkeneko urte honetan eta, horrenbestez, balorazioa oso positiboa da. Ekitaldi asko dira, gehiegi hemen denak zerrendatzeko, baina adibide gisa batzuk aipa ditzakegu: Ihotek,

transgenerazionalaren inguruko 3 taler-hitzaldi, bertso saioak, Bizitokiren hitzaldia, Askapenaren hitzaldia, otorduak, kontzertuak, ikastaroak, kultur asteko ekitaldiak, barazkien banaketa, energia jardunaldiak... Gauza asko egin da eta Atekabeltzek eskaini die horiei guztiei tokia eta azpiegitura.

2014-2015EKO ERRONKAK:

Balorazioa ona da, beraz, baina horrek ez du lasaitzea eta erlaxatzea ekarriko. 2014-2105 ikasturterako Herriguneko erronka berriak ditu eta horri eutsi nahi dio. Hasteko, proiektua bera eta bertan egiten dena herriratzeko asmoa dago. Horrekin batera, Atekabeltz Herrigunea garatu nahi da, eta etengabeko hobetzea egin. Eta hirugarren erronka nagusi gisa, eraikineko 3. solairua txukuntzeko asmoa dago: logela atondu, espazioak erabilgarri jarri, rokodromo txiki bat egin...

Horiek, beraz, ikasturte honetarako erronkak, horiek ere auzolanean eta denon artean egiteko.

ATEKATIK ALDIZKARIA:

Erronka batzuk aipatu ditugu, baina badago aipatzeko moduko beste egitasmo bat, *Atekatik* aldizkariarena hain zuzen ere. Aldizkari horren bitartez Atekabeltz Herrigunean egiten diren ekimenen berri emanen da. Aldizkariak, izan ere, Atekabeltz Herrigunean egindako ekimenak eta landutako gaiak jorratuko ditu. Bertan egiten dena herritarrei bertaratzea eta erakustea da asmoa.

Urtaroro argitaratu eta zabalduko da *Atekatik* aldizkaria, 3 hilean behin alegia. Lehendabiziko zenbakia 2014ko neguan argitaratu da, eta aurreko 3 hilabeteetan egindakoa jaso eta azaldu da bertan. Hurrengo zenbakietan ere egindako horren inguruko informazioa emanen da, denok horren berri zehatza izan dezagun.

Aldizkariak formatu berezia izanen du: orri tolestua izanen da, “desplegable” moduko aldizkaria. Alde batetik testua, irakurtzeko, eta beste aldetik irudiekin osatutako kronologia bat. Herriko zenbait tokitan hartu ahal izanen da.

ATEKABELTZEN FINANTZAKETA

Atekabeltz proiektu sendoa da, ikusten denez, eta, ezinbestean, finantzaketa ere behar du. Bi bide nagusi ditu Herriguneak funtzionamendurako eta lanerako behar duen dirua lortzeko. Batetik, Atekabeltz Herriguneak antolatzen dituen ekimenak: 2014an Esne Beltzaren kontzertua, Atekabeltz Zutik! festa, Zea Maysen kontzertua... Horien guztien aurrekaria AtekaRock kontzertua izan zen. Eta bestetik, Atekabeltzeko laguntzailerak daude, urtean hilabetero euro bat jarritz Atekabeltz proiektua laguntzen dutenak. Horiek gabe ezin izanen zen Atekabeltz Herrigunea proiektua garatu eta hobetzen joan.

Atekabeltz, azaldu dugun moduan, auzolanetik jaiotako topagunea da, eta auzolanean ari dena. Aurrera begirako proiektua da, herriari bizitasuna emanen diona, eta aurrerantzean egin beharreko lana ere elkarlanean egiten duena. Proiektu irekia da, eta irekita dauzka atek herriko eragile eta taldeentzat, herriari bizirik eustea denon egitekoa baita.

Oskar Estangarekin batukada ikastaroan.



Auzolanean.



Mus txapelketa



Sustrai erakuntzaren hitzaldia.

MARMARI ALDIZKARIA HOBETZEA HELBURU

IRAKURLEENTZAKO INKESTA

Marmari aldizkaria 2000. urtean jaio zen, badiu dagoeneko 14 urte. 14 urte horietan 26 zenbaki argitaratu ditugu, eta hainbat kontu jaso. Aldizkaria hobetzeko asmoz, aldizkaria jasotzen duzuenen iritzia jaso nahi dugu. Zer aldatu behar den jakin nahiko genuke, zer hobetu behar den, nola berriro daitekeen aldizkaria, zer gustatzen zaizuen eta zer ez, zuen iritziak, kritikak, ekarpenak...

Horretarako prestatu dugu orrialde honetan duzun galdetegia. Zinez eskertuko genizueke betetzea eta guri helaraztea. Aldizkariko orrialdea moztu edo fotokopia bat egin, galdetegia osatu eta erantzuna Maimur eta Astitz

liburu-dendetan utz dezakezu, edo baita udaletxean Euskara Mankomunitateak duen buzoian ere.

Zure ekarpenak Interneten bidez egin nahi badituzu, galdetegia bera deskargatu dezakezu eta laga@iparmank.org helbidera bidali. Horretarako, www.iparmank.org helbidera joan, ezkerreko menuan "euskaraz bizi" atalean sartu, eta hor "Marmari aldizkaria" hautatu. Hor izanen duzu balorazio-inkesta.

Esan bezala, benetan eskertuko genuke zuen iritzi zintzoa jasotzea, eta uste dugu aldizkariak irabaziko duela, baita irakurle guztiek ere, horren bitartez izanen dugulako aldizkaria hobetzeko bidea.

1 da puntuaziorik txarrena eta 5 puntuaziorik onena

	1	2	3	4	5
Balorazio orokorra					
Aldizkariaren maiztasuna					
Orrialde kopurua					
Testuen ulergarritasuna					
Testuen argitasuna					
Testuen egokitasuna					
Aldizkariaren kalitatea					
Gaien sakontasuna					
Gaien egokitasuna					
Gaien interesa					
Aldizkariaren diseinua eta maketazioa					

Oharrak, iritziak, ekarpenak... Inkestako galdera horiei buruzkoak, edo bestela egin nahiko zenituzkeenak:

zer diozu?

eta zuk,

Lordi Saralegi



- **Harrituta edo txundituta utzi zaituen liburu bat?** “HHhH” Laurent Binet idazle frantziarrarena.
- **Zer da harrituta edo txundituta utzi zintuen hori?** Oso modu berezian kontatzen du nola akabatu Reinhard Heydrich, SSko Nazien burua.
- **Eta bukatu gabe, aspertuta, utzi behar izan duzun liburua?** Tolstoiren “Guerra y Paz”
- **Zerk aspertu edo gogaitu zintuen?** Birritan hasi naiz irakurtzen baina eleberrian agertzen diren izen gehienak errusiarrak dira eta hainbeste pertsonaien artean azkenean galdu egin naiz. Liburu mardula izanik, ez dut sasoi egokia aukeratu irakurtzeko. Ea aurtengo udan, Maddi eta Etxahunen baimenarekin.
- **Zure bizitzako momentu edo garai jakin batekin lotzen duzun kantua?** Zaramaren “Dena ongi dabil”.
- **Zer gogorarazten dizu kantu horrek?** 1987ko kanta da. Abestiak garai hartako egoera politikoa deskribatzen du oso modu ironiko eta gordinean. Abesti ederra ta sorpresaz bete; abestia bezain interesgarria da bertan entzuten diren hainbat pertsonai ezagunen ahotsak: Juan Carlos Borboikoa, Txomin Iturbe, Pasionaria, John Wayne... Beste bitxikeria bat: ni gipuzkoano petoa izanik, beti erabili izan dut “ondo” hitza eta Leitzara bizitzera etorrita ere ez dut sekula “ongi” erabili. Orain konturatu naiz, gaztetan abesti hau kantatzerakoan “ongi” esaten nuela.
- **Zure bizitzatik hiru hauetako bat baztertu beharko bazenu, zein aukeratuko zenuke?** **Honax:** irakurtzea, kirola egitea, musika entzutea. Kirola egitea
- **Azalduko diguzu zergatik?** Irakurtzeak eta musikak arnasa ematen didatelako eta kirola egitean arnasa galtzen dudalako.
- **Zein dira zure zaletasunen artean gehien estimatzen dituzunak?** Mendian ibiltzea.
- **Eta pentsatu al duzu inoiz zure zaletasun horiek nondik heldu zaizkizun?** 6 bat urte izango nituen, amarekin Ibarako Izaskun auzora joan nintzen eta han urrutira Uzturre mendia ikusi nuen. Hara joan nahi nuela esan nion eta berak ezetz, urruti zegoela eta beste egun batean igoko nuela. Geroztik makina bat aldiz igo dut.
- **Bukatzeke, eta berriz zure zaletasunekin lotuta: zein da (aitortzeko modukoa den) zure hurrengo asmoa edo proiektu txiki edo handia?** Telebistarako saio berri bat ari gara prestatzen, “Herri txiki infernu handi” du izena. Oso proiektu berezia da. Ikusten baduzue (urtariletik aurrera ETB1n) ez zarete damutuko eta protagonisten izenak euskaldunak direnez, ez zarete kontakizunarekin galduko.

Mamen Uharte



- **Harrituta edo txundituta utzi zaituen liburu bat?** Joseba Sarrionandiaren “Kolosala izango da” euskaraz eta D.H. Lawrencen “Lady Chatterleyren maitalea”, gaztelaniazko bertsoian.
- **Zer da harrituta edo txundituta utzi zintuen hori?** Lehenengoan, zoragarrie iruditzen zait gerrako gora-beherak mutiko baten bizipen eta ikuspegitik nola kontatzen dituen Sarrik; eta bigarrean... bada, gaztetan irakurri nuen eta istorioak berak eta bereziki agertzen duen erotismoak txunditu ninduen orduan.
- **Eta bukatu gabe, aspertuta, utzi behar izan duzun liburua?** Maiz gertatu izandu zait hori, baina azkenekoa “Martutene”, Ramón Saizarbitoriarena.
- **Zerk aspertu edo gogaitu zintuen?** Oso mardula da, lehenbizikotik ez ninduen harrapatu, ez dut arrazoi zehatz bat, akaso hemendik urte batzutura...
- **Zure bizitzako momentu edo garai jakin batekin lotzen duzun kantua?** Hemen ere bi aipamen: Haizea taldearen “Arrosa xuriaren azpian”, eta Doors taldearen “Riders on the storm”.
- **Zer gogorarazten dizu kantu horrek?** Biak ala biak gaztetan entzun eta memoriz ikasitako diskoetakoak dira... Ordun musika asko entzuten nuen eta Haizearena neroni kantari aritzeko oso gustokoa nuen, eta Doorsena... nik uste denbo hartan gazte asko Jim Morrison kantariarekin txoratuta egoten ginela. Oilkopikorretan jartzen naiz oraindik kantu hori entzunda.
- **Zure bizitzatik hiru hauetako bat baztertu beharko bazenu, zein aukeratuko zenuke?** **Honax:** irakurtzea, kirola egitea, musika entzutea. Kirola egitea.
- **Azalduko diguzu zergatik?** Nahiago dudalako irakurri eta musika entzun.
- **Zein dira zure zaletasunen artean gehien estimatzen dituzunak?** Musika entzutea eta irakurtzea, hain xuxen. Bakarrik bidaiatzea, tren hartuta esate baterako, ere bai.
- **Eta pentsatu al duzu inoiz zure zaletasun horiek nondik heldu zaizkizun?** Oso umetan zaletu nintzen irakurtzera eta musika entzuterako; gerora, bidaiekin erabat lotuta joan da gogo hori.
- **Bukatzeke, eta berriz zure zaletasunekin lotuta: zein da (aitortzeko modukoa den) zure hurrengo asmoa edo proiektu txiki edo handia?** Gauza handirik ez... Leon hiriburua ezagutzea akaso; bada Bilbotik abiatzen den tren berezi bat... liburu bat hartu, musika entzuteko tresna hartu...